

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MUTRIKUKO UDALA

*Dirulaguntzen deialdiaren aldaketa. Mutrikuko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarbertzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak: Jar-duera ekonomikoa.*

Covid-19ari aurre egiteko prestatzera bideratutako inbertsioak 2021eko urtarrilaren 27an Mutrikuko Udaleko Alkateak 8/2021 Ebazpen bidez, besteren artean, ondokoa ebatzi zuen:

Ikusirik ondoko egitateak:

2020ko ekainaren 9ko bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Covid-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarbertzeko programaren barruko laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu zituen.

Deialdi horretan oinarrituz 2021eko urriaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrak «Mutrikuko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarbertzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak: jarduera ekonomikoa Covid-19ari aurre egiteko prestatzera bideratutako inbertsioak» egiteko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia burutzea onartu zituen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko erabaki baten bidez, Covid-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarbertzeko programaren barruko laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak aldatzea onartu zen. Hain zuzen ere, programaren barruko jarduketak egiteko epea 2021eko maiatzaren 15era arte luzatzea onartu zen, eta dirulaguntzen erabileraren justifikazioa aurkeztekoa 2021eko uztailaren 15era arte luzatzea.

Kontuan harturik Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2020ko abenduaren 15ean erabakitako aldaketara egokitzeko beharrezkoa dela Mutrikuko Udalaren deialdiaren oinarriak egokitzea.

Kontuan harturik espedientea osatzen duten agiriak ondokoa ebatzi da:

*Lehena.* Oinarrien 4. atala aldatzeko ondoko moduan jasotzen delarik:

«Diruz lagundutako jarduerak 2020ko martxoaren 14tik 2021eko maiatzaren 15era artean egingo dira.».

*Bigarrena.* Eskariak aurkezteko epea 2021eko martxoaren 5era arte luzatzea.

*Hirugarrena.* Onuradunek Mutrikuko Udalarri justifikatzeko izango duten azken eguna 2021eko maiatzaren 31a izango da.

Mutriku, 2021eko urtarrilaren 29a.—Alkatea. (547)

AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU

*Modificación de la convocatoria de ayudas. Bases reguladoras de las ayudas para la reactivación económica de los sectores del comercio y hostelería de Mutriku: Inversiones dirigidas a preparar la actividad económica para hacer frente a la Covid-19.*

La Alcaldía del Ayuntamiento de Mutriku con fecha 27 de enero de 2021, mediante Resolución 8/2021, entre otros, resolvió lo siguiente:

Resultando los siguientes hechos:

Que el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa en reunión de fecha 9 de junio de 2020 aprobó la convocatoria y las bases reguladoras para la concesión de subvenciones del «Programa para la reactivación económica local en los sectores del comercio y hostelería para hacer frente al Covid-19».

Que en base a dicha convocatoria, la Junta de Gobierno Local del 21 de octubre de 2020 aprobó la convocatoria y las bases de las ayudas a la «reactivación económica de los sectores del comercio y hostelería de Mutriku: inversiones dirigidas a preparar la actividad económica para hacer frente a la Covid-19».

Que mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral del 15 de diciembre de 2020 se acordó la modificación de las bases reguladoras y de la convocatoria del Programa para la reactivación económica local en los sectores del comercio y hostelería para hacer frente a la Covid-19. Mediante dicho acuerdo se amplía el plazo de ejecución de las actuaciones hasta el 15 de mayo de 2021, así como el plazo para presentar la justificación de la subvención hasta el 15 de julio de 2021.

Considerando la necesidad de adaptar las bases de la convocatoria del Ayuntamiento de Mutriku a la modificación acordada por el Consejo de Gobierno Foral de Gipuzkoa del 15 de diciembre de 2020.

Considerando la documentación obrante en el expediente se ha resuelto lo siguiente:

*Primero.* Modificar el apartado 4 de las bases siendo su redacción la siguiente:

«Las actuaciones que se subvencionen se ejecutaran entre el 14 de marzo de 2020 al 15 de mayo de 2021.

*Segundo.* Ampliar el plazo para presentar solicitudes hasta el 5 de marzo de 2021.

*Tercero.* La fecha límite que tendrán los beneficiarios para justificar los gastos al Ayuntamiento de Mutriku será el 31 de mayo de 2021.

Mutriku, a 29 de enero de 2021.—El alcalde. (547)